

## PROIEKTU DEIALDIA

### Bordeleko Unibertsitatean eta UPV/EHUn tutorekidetza erregimenean egiteko doktorego tesiak (2013)

#### PROIEKTU DEIALDIAREN XEDEA

Bordeleko Unibertsitateak eta UPV/EHUK eta aldi berean DIPCek, TECNALIAk eta UPV/EHUK konformatzen duten elkartasun estrategikoa pasadan 2010eko Irailaren 10ean sinatutako oinarrizko lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, azken hauek Nazioarteko Bikaintasun Kanpusaren proiektu honen promotoreak izanda, abian jarri da deialdi publiko bat, aurre-doktorego kontratuak gauzatzeko. Kontratu hauen asmoa **doktorego tesiak tutorekidetza erregimenean** egitekoa da.

Deialdi hau diziplina arlo guztiei dago zabalik.

#### PROZEDURA

- 2013an doktorego aurreko 6 kontratu finantzatuko dira (unibertsitate bakoitzean 3).
- Proiektuen proposamenak honako irizpide hauen arabera aurkeztuko dira:
  - ✓ Aurkeztutako proiektu bakoitzeko proposamen bakarra, baita proposamenak hautagai bat baino gehiago barne hartzen baditu ere.

## PROIEKTU DEIALDIA

### Bordeleko Unibertsitatean eta UPV/EHUn tutorekidetza erregimenean egiteko doktorego tesiak (2013)

---

- ✓ Proposamena ingelesez idazten bada, bi unibertsitateetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da, baina batean bakarrik.
- ✓ Proposamena bi unibertsitateetako hizkuntza ofizialetako batean aurkezten bada, bi unibertsitateetan aurkeztu beharko da.
- Proiektuak UBXko eta UPV/EHUko kideek osatutako batzorde misto batek aukeratuko ditu. Horiek aukeratzean, ezagutza arlo desberdinen arteko orekari eutsi beharko zaio.
- Aukeraketa egiteko, kontuan hartuko dira proposatutako hautagaien tesi proiektuen eta CVaren kalitatea eta espediente akademikoa (ikus aurrerago ebaluatzeko irizpideak).
- Zerrenda nagusi bat egingo da aukeratutako hautagaiekin, eta beste itxarote-zerrenda bat aukerako hautagaiekin.
  - ✓ Doktorego tesia egiteko proiektu bakoitzeko hautagai bakarra aukeratu ahal izango da.
  - ✓ Aurkeztutako proiektuak hainbat hautagai barne hartzen baditu, batzorde mistoak sailkapen bat egin beharko du horien artean, posizionamendu onena lortzen duena aukeratzeko.
  - ✓ Zerrendetan proiektuak eta horien arduradunek proposatutako hautagaiak jasoko dira.
  - ✓ Zerrenda nagusian dagoen hautagai batek uko eginez gero, itxarote-zerrendako lehen proiektuari dagokion hautagaia aukeratuko da.
  - ✓ Aukeratutako itxarote-zerrendako proiektuak hainbat hautagai barne hartzen baditu, batzorde mistoak horien arteko sailkapen bat egin beharko du, posizionamendu onena duena aukeratzeko.
- Ondorioz, doktorego tesia egiteko proiektu bera bi zerrendetan ager daiteke aldi berean, zerrenda nagusian eta itxarote-zerrendan (aukeratutako hautagaiarekin eta proposatutako beste hautagai batzuekin, hurrenez hurren).
- Proiektuen bi zerrendak (zerrenda nagusia eta itxarote-zerrenda) bi unibertsitateen artean argitaratuko dira.

**PROIEKTU DEIALDIA**  
**Bordeleko Unibertsitatean eta UPV/EHUn tutorekidetza erregimenean egiteko doktorego tesiak (2013)**

---

- Kontratazioaren aurretik UPV/EHUko edo Bordeleko Unibertsitateko doktorego programa batean onartua egotearen egiaztagiria aurkeztea.
- Aukeratutakoek doktorego aurreko 3 urteko kontratu bat lortuko dute. Tesia finantzatuko duen unibertsitatean matrikulatzeko gastuak aukeratutako doktoregaiek ordainduko dituzte.
- Bi erakundeek tutorekidetza hitzarmen bana sinatuko dute finantzatutako tesi bakoitzeko, eta, bertan, tesi bakoitzari buruzko xehetasunak jasoko dira.
- UPV/EHUK eta UBXk sinatutako oinarrizko lankidetza eta tutorekidetza hitzarmenetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira. Hitzarmen horietan jasota ez dauden alderdiei dagokienez, tesia finantzatuko duen herrialdeko araudia izango da aplikagarri.
- Deialdiaren kudeaketa prozesuaren eta emaitzen berri eman beharko zaie bi unibertsitateetako atal eskudunei (doktorego eskolak, UBXko Ikerketa Kontseilua eta Kontseilu Zientifikoa, UPV/EHUn Master eta Doktorego Eskola).

## **DATAK**

- **Proiektuen deialdien baterako argitalpena:** 2013ko maiatzaren 31a.
- **Proposamenak aurkezteko azken eguna:** 2013ko uztailaren 1a.  
UBXn Frantziako taldeentzat (eskaera frantsesez edo ingelesez) eta UPV/EHUn Espainiako taldeentzat (eskaera gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez).
- **Batzorde mistoak eskaerak aztertzeke epea:** 2013ko uztailaren 9a.
- **Aukeratutako proiektuen eta hautagaien azken zerrenda:** 2013ko uztailaren 12a. (zerrenda nagusia + itzarote-zerrenda).
- **Tesiaren hasiera: urria 2013.**

## **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- Doktorego tesia egiteko proiektuaren ebaluazioa: doktorego tesia egiteko proiektuaren/metodologiaren helburuak/interesa.
- Ikerketa taldeak, tesi zuzendaria; bi taldeen arteko osagarritasun zientifikoa.
- Doktoregaiaren lan munduratzea errazteko gauzatutako ekintzak.
- Martxan dauden edo etorkizunean gauzatuko diren proiektuen perspektibak/zerrenda (bereziki, Europa mailakoak).
- Tutorekidetzaren ondoriozko gainbalio zientifikoa.
- Doktoregaiaren espedientea: CVa eta espediente akademikoa.

**DOKTOREGO TESIA UBXaren ETA UPV/EHUren ARTEKO  
TUTOREKIDETZA ERREGIMENEAN EGITEKO PROIEKTU  
PROPOSAMENA**

**Tesiaren GAIA:**

## **UBX**

**Tesi zuzendariaren izen-abizenak:** *zuzendariak ikerketa prozesua gainbegiratzeko gaikuntza (HDR) izan behar du.*

Eskaera egin duen taldea:

Telefono zk.:

Helbide elektronikoa:

**Taldeko zuzendariaren VISA:**

**Abizenak:**

**Izena:**

**Data:**

**Sinadura:**

**Doktorego Eskolako zuzendariaren VISA:**

**Abizenak:**

**Izena:**

**Data:**

**Sinadura:**

## **UPV/EHU**

**Tesi zuzendariaren izen-abizenak:** (irakasle funtzionarioentzako eta ez funtzionarioentzako seiurteko bat izan beharko dute gutxienez, edo bestela, UPV/EHUren barnean doktorego tesiak zuzentzeko ahalmena emango dion Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzako Doktorego Batzordearen aintzatespena)

Eskaera egin duen taldea:

Telefono zk.:

Helbide elektronikoa:

**Taldeko zuzendariaren VISA:**

**Abizenak:**

**Izena:**

**Data:**

**Sinadura:**

**Proiektuaren deskribapena (gehienez 4 orrialde):**

(ondorengo atalak izan behar ditu)

- 1- Laburpena (gehienez 10 lerro)
- 2- Helburuak eta metodologia
- 3- Ikerketa taldeen eta tesi zuzendarien aurkezpen laburra (CV laburtua, gehienez 10 lerrokoa, edo webgune baterako esteka); orobat, taldearen esperientzia ere adierazi ahal izango da
- 4- Doktoregaiaren enplegarritasuna indartzeko gauzatutako ekintzak
- 5- Uneko edo etorkizuneko proiektuekiko (bereziki Europakoekiko) aukerak edo horietako partaidetza; doktorego tesia tutorekidetza erregimenean egitearen balio zientifiko erantsia

**Proiektu proposamenarekin batera erantsi beharreko hautagaien dokumentazioa:**

- 1- Hautagaiaren CVa (frantsesez, gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez).
- 2- Espediente akademikoa (UPV/EHUko taldeek proposatutako hautagaien kasuan).

**Oharra:** proposamenak hautagai bat baino gehiago barne hartzen baditu, horietako bakoitzari dagozkion aipatutako dokumentuak erantsi beharko dira.